# Pasa Hitza



**EGITEKOA**

- Batek puntua abestuko du, hitz ezkutuaren pistak emanez; besteek hitz ezkutu hori zein den igarri beharko dute.
- Lehenik, aukeratu kopla doinu egoki bat galdera-erantzunetan aritzeko.
- Ondoren, karta-sortatik hautatu A-tik Z-raino doan karta multzo bat (kolore bera dutenak). Ziurtatu ordena alfabetikoan daudela.
- Puntu jartzaileak aldiro multzotik karta bat hartuko du eta zein hizki den esango du, ozen; horixe da lehen pista, hizki horrekin hasten baita hitz ezkutua. Ondoren, kartan datorren puntua abestuko du. Adi errimari: hitz ezkutuak errimatu egiten baitu jarritako puntuarekin.
- Hitz ezkutua zein den igartzen duenak esan egingo du: hitz lauz edo puntua abestuz.
- Inork erantzun zuzena asmatzen ez badu, puntu jartzaileak esan egin dezake (kartan bertan baitu), eta hurrengo hizkira pasatuko da. Hala, kartaz karta A-tik Z-rainoko erronda osatuko du.

Babeslea

bertsozale elkartea

Lanku kultur zerbitzuak

EUSKO JAURLARITZA GOBIERNO VASCO

**PASA HITZA**

**144**

A-tik Z-rako multzoak: 10

A

Klik eta klik bete dut
mugikor GUZTIA

*ARGAZKIA**

Pasa Hitza

B

Bi gurpilekoa da
laukoa TARTEKA

*BIZIKLETA**

Pasa Hitza

D

Makilekin jotzean
ze soinu GOGORRA

*DANBORRA**

Pasa Hitza

E

Batzuen esku ona,
besteen ALFERRA

*EZKERRA**

Pasa Hitza

F

Egipton agintzeko
bazuen SASOIA

*FARAOIA**

Pasa Hitza

G

Zapore honek pozten
du gorputz OSOA

*GOZOA**

Pasa Hitza

## H

Bertantxe goxo-goxo bizi da TXORIA

*HABIA**

Pasa Hitza

## I

Oilaskoarena da jateko EDERRA

*IZTERRA**

Pasa Hitza

## J

Jan eta jan asetzen zaila den LAGUNA

*JATUNA**

Pasa Hitza

## K

Oporrak pasatzeko toki ATSEGINA

*KANPINA**

Pasa Hitza

## L

Usain gozoa dauka sarri DOTOREA

*LOREA**

Pasa Hitza

## M

Zerurantz altxatzen den lur zati HANDIA

*MENDIA**

Pasa Hitza

## N

Lurrean arrastaka
bizi den PIZTIA

*NARRASTIA**

Pasa Hitza

## O

Musika mota bat da
abestua BERA

*OPERA**

Pasa Hitza

## P

Do, re, mi… Bost lerrotan
musika DARAMA

*PENTAGRAMA**

Pasa Hitza

## R

Autopistan egin du
argazki AZKARRA

*RADARRA**

Pasa Hitza

## S

Pertsonaren izena
herria ere BADA

*SARA**

Pasa Hitza

## T

Arto-irinezkoa,
janari XALOA

*TALOA**

Pasa Hitza

U

Gitarratxo txikia
asko da ZALEA

*UKELELEA**

Pasa Hitza

X

Taloan gaztarekin
jateko ez da TXARRA

*XINGARRA**

Pasa Hitza

Z

Lotan dagoenean
altxatzen du OINA

*ZIKOINA**

Pasa Hitza

## A

Tresna punta zorrotza sarritan GAIZTOA

*AIZTOA**

Pasa Hitza

## B

Txanoa janzteko hau leku SEGURUA

*BURUA**

Pasa Hitza

## D

Europa iparraldeko lurralde APARTA

*DANIMARKA**

Pasa Hitza

## E

Labain egin ostean gertatzen den HORI

*ERORI**

Pasa Hitza

## F

Lantoki honen keak belzten du BIRIKA

*FABRIKA**

Pasa Hitza

## G

Komeni den pisutik gora DABILENA

*GIZENA**

Pasa Hitza

## H

Txori itxura dauka
burdinez EGINA

*HEGAZKINA**

Pasa Hitza

## I

Nor garen jakiteko
erabiltzen DENA

*IZENA**

Pasa Hitza

## J

Asiako izkinan
dago IPINIA

*JAPONIA**

Pasa Hitza

## K

Hauskor eta gardena.
Ez dakizu, ALA?

*KRISTALA**

Pasa Hitza

## L

Pinotxoren sudurra
BEZALAKOXEA

*LUZEA**

Pasa Hitza

## M

Esnea gordetzeko
lehengo TETRA-BRIKA

*MARMITA**

Pasa Hitza

N

Urtaro honetan goiz belzten da ZERUA

*NEGUA**

Pasa Hitza

O

Soinuak duenean altu BOLUMENA

*OZENA**

Pasa Hitza

P

Oihaneko katua beltz-beltza da BERA

*PANTERA**

Pasa Hitza

R

Islamdarren barauan ezin da jan-EDAN

*RAMADAM**

Pasa Hitza

S

Herri Urrats jaia han ospatzea LEGE

*SENPERE**

Pasa Hitza

T

Ederra entsaladan gordinik JATEA

*TOMATEA**

Pasa Hitza

U

Metal preziatua
baina ez da KOBREA

*URREA**

Pasa Hitza

X

Belarri ertzera doan
hizkera AHULA

*XUXURLA**

Pasa Hitza

Z

Lurpeko animalia
hankarik GABEA

*ZIZAREA**

Pasa Hitza

A

Salgai barazki, gazta
eta OILALOKA

*AZOKA**

Pasa Hitza

B

Bi pertsona haserre
eta elkar JOKA

*BORROKA**

Pasa Hitza

D

Itsulapikoa du
leku SEGURUA

*DIRUA**

Pasa Hitza

E

Erle eta liztorrek
atzean DUTENA

*EZTENA**

Pasa Hitza

F

Sokan erortzen ez den
zirkuko ARTISTA

*FUNANBULISTA**

Pasa Hitza

G

Eguerdia heltzean
tripako HAIZEA

*GOSEA**

Pasa Hitza

## H

Beti ikusezina
tarteka HEZEA

*HAIZEA**

Pasa Hitza

## I

Deabrua bizi den
suzko EREMUA

*INFERNUA**

Pasa Hitza

## J

Hau eginez seguru
baietz ondo PASA

*JOLASA**

Pasa Hitza

## K

Komun zulotik behera
joan da BUELTAKA

*KAKA**

Pasa Hitza

## L

Urduritzen ez dena
horrela dago, BAI

*LASAI**

Pasa Hitza

## M

Ahoko organoa
hezea, LABAINA

*MINGAINA**

Pasa Hitza

## N

Zaintzeko hartu behar genuke ARDURA

*NATURA**

Pasa Hitza

## O

Ogi bihurtzen ditu ura eta IRINA

*OKINA**

Pasa Hitza

## P

Urtebetetze jaian hartzen du KANDELA

*PASTELA**

Pasa Hitza

## R

Edari alkoholduna piratentzat ONA

*RONA**

Pasa Hitza

## S

Belarra biltzeko dut ganbaran GORDEA

*SARDEA**

Pasa Hitza

## T

Burrunbaka hasi da berriz zeru GOIA

*TRUMOIA**

Pasa Hitza

## U

Sasoi hau iristean denak HONDARTZARA

*UDARA**

Pasa Hitza

## X

Sendagileak sartu dit txista EGINDA

*XIRINGA**

Pasa Hitza

## Z

Zeruan behera tanta asko jausten BADA

*ZAPARRADA**

Pasa Hitza

A

Krispeten jatorria
jo aurrez SALTOA

*ARTOA**

Pasa Hitza

B

Karakolaren lagun
oskolik GABEA

*BAREA**

Pasa Hitza

D

Halako pila dago
kalera IRTENDA

*DENDA**

Pasa Hitza

E

Sudurraren azpia
kokotsaren GAINA

*EZPAINA**

Pasa Hitza

F

Urtebetetzerako
plan hoberik EZ DA

*FESTA**

Pasa Hitza

G

Zapore mota bat da
ez dena MIKATZA

*GARRATZA**

Pasa Hitza

## H

Hitzak definitzeko liburu LODIA

*HIZTEGIA**

Pasa Hitza

## I

Zer sentitzen da gauez galdu egin BAZARA?

*IKARA**

Pasa Hitza

## J

Arropa hau erraza nonahi AURKITZEA

*JERTSEA**

Pasa Hitza

## K

Arazoak gainditu ditzakeen AHALMENA

*KEMENA**

Pasa Hitza

## L

Etxera sartzen bada nolako BELDURRA

*LAPURRA**

Pasa Hitza

## M

Fruta honek dirudi errugbi BALOIA

*MELOIA**

Pasa Hitza

## N

Euskal lurralde handi emankor, HARROA

*NAFARROA**

Pasa Hitza

## O

Beldurtzean burua lurpera SARTUTA

*OSTRUKA**

Pasa Hitza

## P

Baleak jan ditzake astean sei TONA

*PLAKTONA**

Pasa Hitza

## R

Bisera bat jantzita errimatzen ERO

*RAPERO**

Pasa Hitza

## S

Antxoa ez ote da bere LEHENGUSINA?

*SARDINA**

Pasa Hitza

## T

Faraoi handi honi guztiek JARAMON

*TUTANKAMON**

Pasa Hitza

## U

Sarri zeruak duen kolore BERDINA

*URDINA**

Pasa Hitza

## X

Perkusiozko tresnak hotsa, ERRITMOA

*XILOFONOA**

Pasa Hitza

## Z

Ia-ia hauekin zapaldu dut KAKA

*ZAPATA**

Pasa Hitza

## A

Gurasoen amatxo
ze pertsona ONA

*AMONA**

Pasa Hitza

## B

Aurpegiko ilea
sarritan ZAKARRA

*BIZARRA**

Pasa Hitza

## D

Urte mordoa bizi
den narrasti MOTA

*DORTOKA**

Pasa Hitza

## E

Mara-mara zuritzen
du mendi GAILURRA

*ELURRA**

Pasa Hitza

## F

Azalarekin edo
azala KENDUTA

*FRUTA**

Pasa Hitza

## G

Postontzi barrenean
aurkitzen DUGUNA

*GUTUNA**

Pasa Hitza

## H

Bi eskuetan askok
hamar DARAMATZA

*HATZA**

Pasa Hitza

## I

Garena ikusteko
hauxe da GAILUA

*ISPILUA**

Pasa Hitza

## J

Orratza darabilen
langile KUTUNA

*JOSTUNA**

Pasa Hitza

## K

Arte martzial honek
txikitu ZAITZAKE

*KARATE**

Pasa Hitza

## L

Sumendien ahotik
irteten den SALDA

*LABA**

Pasa Hitza

## M

Ibilgailu askoren
bihotza da, HORRA

*MOTORRA**

Pasa Hitza

N

Lurra lantzen dakien pertsona ARGIA

*NEKAZARIA**

Pasa Hitza

O

Honentzat ostirala da BIHARAMUNA

*OSTEGUNA**

Pasa Hitza

P

Esanahi sakoneko testu BEREZIA

*POESIA**

Pasa Hitza

S

Masusta landarea arantzaz JOSIA

*SASIA**

Pasa Hitza

T

Putzura erortzean sortu ohi du KANTA

*TANTA**

Pasa Hitza

U

Eskuekin garatzen dugun ZENTZUMENA

*UKIMENA**

Pasa Hitza

X

Garbigarriak duen izen HERRIKOIA

*XABOIA**

Pasa Hitza

Z

Filmak ikusten diren tokien IZENA

*ZINEMA**

Pasa Hitza

A

Gaueko otordua pista NABARIA

*AFARIA**

Pasa Hitza

B

Euskal hiriburua toki oso ONA

*BAIONA**

Pasa Hitza

D

Harribitxi hau dago distiraz BETEA

*DIAMANTEA**

Pasa Hitza

E

Eria zaintzen duen langile BIKAINA

*ERIZAINA**

Pasa Hitza

F

Sendagai bat badaukat bertan EROSIA

*FARMAZIA**

Pasa Hitza

G

Etxera sartu nahian baldin BAZABILTZA

*GILTZA**

Pasa Hitza

## H

Bi hauei eraginez
txoria hor DOA

*HEGOA**

Pasa Hitza

## I

Udaltzainak lehengoan
ipini ZIGUNA

*ISUNA**

Pasa Hitza

## J

Lorez eta belarrez
pertsonek EGINA

*JARDINA**

Pasa Hitza

## K

Xomorro hau kantuan
ez dugu ALFERRA

*KILKERRA**

Pasa Hitza

## L

Buruari eusteko
bizkar GAINEKOA

*LEPOA**

Pasa Hitza

## M

Lau ezpainek batuta
sortzen duten SUA

*MUXUA**

Pasa Hitza

## N

Sentsazio txar honek lagun gutxi DAUZKA

*NAZKA**

Pasa Hitza

## O

Narratsaren logelan sarri falta DENA

*ORDENA**

Pasa Hitza

## P

Herriko bilgunea topatzen ERRAZA

*PLAZA**

Pasa Hitza

## S

Txanogorritxuk zeukan beterik GUZTIA

*SASKIA**

Pasa Hitza

## T

Jokoan ez galtzeko egin du GALANTA

*TRANPA**

Pasa Hitza

## U

Urte gutxi dituen pertsona ERNEA

*UMEA**

Pasa Hitza

X

Mahai-joko zuri-beltza peoiez BETEA

*XAKEA**

Pasa Hitza

Z

Aztoratzean sortu ohi dugun ZARATA

*ZALAPARTA**

Pasa Hitza

A

Nork bereak onartzen ez da lan ERRAZA

*AKATSA**

Pasa Hitza

B

Dantza mota honetan jauzi eta BUELTA

*BALLETA**

Pasa Hitza

D

Urrez, brontzez edota zilarrez EGINA

*DOMINA**

Pasa Hitza

E

Borondate onaren bila kalez KALE

*ESKALE**

Pasa Hitza

F

Harri bihurtu zena orain urte PILA

*FOSILA**

Pasa Hitza

G

Langileen protesta, ez doaz LANERA

*GREBA**

Pasa Hitza

## H

Zuhaitzaren jantzia
maiz berde ASKOA

*HOSTOA**

Pasa Hitza

## I

Amaren ahizpa edo
aitaren ARREBA

*IZEBA**

Pasa Hitza

## J

Euskal mitologian
erraldoi UMILA

*JENTILA**

Pasa Hitza

## K

Irakurtzerakoan
arnasteko ONA

*KOMA**

Pasa Hitza

## L

Ez dena borobila
edo HIRUKIA

*LAUKIA**

Pasa Hitza

## M

Ohepean bizi da,
eman dit SUSTOA

*MUNSTROA**

Pasa Hitza

N

Erleek batzen dute
loreen NEGARRA

*NEKTARRA**

Pasa Hitza

O

Kolorezko arku bat
zeruan sei MARRA

*OSTADARRA/ORTZADARRA**

Pasa Hitza

P

Akatsik gabekoa,
ia SAKRATUA

*PERFEKTUA**

Pasa Hitza

S

Akelarre mordoxka
dauzkana EGINA

*SORGINA**

Pasa Hitza

T

Txin-txin ospa dezagun
altxa gora KOPA

*TOPA**

Pasa Hitza

U

Bizkaiko biosfera
ez al duzu joan NAHI?

*URDAIBAI**

Pasa Hitza

X

Urepeleko artzaina
ba al dakizu NOR?

*XALBADOR**

Pasa Hitza

Z

Gezurrak zabaltzea
da bere ERRUA

*ZURRUMURRUA**

Pasa Hitza